

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2833

AGINDUA, 2022ko ekainaren 7koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita, batetik, Futubide-Fundación Tutelar Gorabide izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko egina, eta, bestetik, Futubide Fundazioa izeneko fundazioa izateko izen-aldaketa.

2022ko apirilaren 29an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko erregistroan telematikoki sartu zen fundazioaren izena eta estatutuak aldatzeko eskritura publikoa, zeina 2022ko martxoaren 24an egiletsi baitzen Ignacio Alonso Salazar Bilboko notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 886).

Eskritura publiko horretan sartu zen Fundazioaren Patronatuko idazkariak presidentearen oniritziarekin 2022ko urtarrilaren 26an egindako ziurtagiria, patronatuak 2022ko urtarrilaren 25ean egindako bilerarena. Bilera horretan, aho batez erabaki zuten estatutuen izenari buruzko 1. artikulua eta helburuei buruzko 6. artikulua aldatzea, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatuz laguntzeko legeria zibil eta prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legea egokitzeko. Horrez gain, estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitu zitezela onartu zuten.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutuetan egindako aldaketak bat datoz aplikatutakoak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, batetik, Gorabide-Fundación Tutelar Gorabide fundazioaren estatutuen aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko egina; bestetik, Futubide Fundazioa izeneko fundazioa izateko izen-aldaketa; eta, azkenik, fundazioaren helburuei buruzko 6. artikulua aldatzea, Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatuz laguntzeko legeria zibil eta prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legea egokitzeko egina. Hori guztia Fundazioaren Patronatuaren erabakiz, Agindu honen datarekin, eta 2022ko martxoaren

ren 24an Bilboko notario Ignacio Alonso Salazar jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoko zehaztapenekin bat etorri (protokolo-zenbakia: 886).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 7a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.